

IRAKASLEAK. DIAGNOSTIKOA**10.0. TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA**

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu noraino zauden ados, 1etik (ez bazaude batere ados) 4ra (erabat ados bazaude).

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA				
1. Zuzendaritza-talde bat lortzeko ahaleginak egiten dira, ikastetxeko prozesu berritzaileen buru izan dadin.	1	2	3	4
2. Ikasleen heldutasun pertsonala, bizikidetzaren ona, ekitatea eta genero-berdintasuna lortzea dira gure ikastetxearen hezkuntza-ardatzak, heterogeneotasun- eta inklusio-irizpideak aplikatuta.	1	2	3	4
3. Ikastetxeak genero-berdintasunari buruzko prestakuntza-programa bat du, ikasleei, administrariari eta zerbitzuko langileei, familiei eta irakasleei zuzendutako jarduerekin.	1	2	3	4
4. Hobekuntza sustatzen ari da gure ikastetxean, autoanalisiaren eta ebaluazioaren bidez.	1	2	3	4
5. Ikastetxea gune segurua eta eroso da, eta bertan, genero-bereizketarik gabe, osasuntsu bizi gara elkarrekin.	1	2	3	4
6. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak (IHP) genero-ikuspegia txertatzen du bere helburuetan, orientabide metodologikoetan, parte-hartzean ...	1	2	3	4
7. Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren (ICP) helburuek eta edukiek genero-ikuspegi integratua eta hezkidetzaren metodologia biltzen dituzte.	1	2	3	4
8. Bizikidetzaren Planak genero-ikuspegia txertatzen du, eta hezkidetzaren neurriak ez ezik, genero-gatazka ere hartzen ditu kontuan, besteak beste, ikasgelan eta ikasgelatik kanpoko elkarreraginak jasotzen dituzten protokoloak ere bai.	1	2	3	4
9. Tutoretza Ekintzaren Planak genero-ikuspegia txertatzen du, eta, besteak beste, honako atal hauek biltzen ditu: hezkuntza afektibo sexuala (heterosexualitatea, homosexualitatea ...), erantzunkidetasuna eta zaintzak, orientazio profesional ez-sexista.	1	2	3	4
10. Antolakuntza eta Jarduera Araudia honelakoa da: Hezkidetzakoa, inklusiboa eta ez-sexista.	1	2	3	4
11. Ikastetxearen urteko memoriak eta planak aurreko dokumentuetan aipatutako alderdiak garatzeko ekintzak formulatu eta baloratzen dituzte.	1	2	3	4
12. Ikastetxeak hainbat erakunderekin (Hezkuntza Administrazioa, gobernuaren kanpoko erakundeak, Udala, Aldundia ...) eta familiekin dituen komunikazio ofizialetan, hizkuntzaren erabilera ez-sexista hartzen da kontuan.	1	2	3	4
13. Irizpide argiak daude hezkuntza-komunitateko kideen artean, termino edo esamolde sexisten erabilera zuzentzeko.	1	2	3	4
14. Ardura berak dituzte mutilek eta neskek ikasgelak eta ikastetxea prestatu, bildu eta apaindu behar direnean.	1	2	3	4
15. Positiboa da ikastetxean Hezkidetzakoa eta genero-berdintasuneko arduradun bat egotea.	1	2	3	4
16. Ikastetxeko erroturetan, gizonak eta emakumeak berdin islatzen dituzten terminoak erabiltzen dira.	1	2	3	4
17. Ikastetxeak ohiko harremanak ditu inguruko berdintasun-elkarteekin (emakumeenak, LGTBI ...)	1	2	3	4
18. Ikastetxeak ohiko harremanak ditu Udalarekin genero-berdintasunari buruzko gaiei heltzeko.	1	2	3	4

IKASGELAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA/IRAKASLE-ESTILOA				
19. Gelan berdin galdetzen diet eta protagonismo bera ematen diet neskei eta mutilei.	1	2	3	4
20. Ardura berberak esleitzen dizkiet mutilei eta neskei, ikasgelak eta ikastetxea prestatu, bildu eta apaindu behar direnean.	1	2	3	4
21. Esku hartzen dut ikasleen kokapenari dagokionez, mutilak eta neskak nahastu daitezzen, talde itxiak osatu gabe.	1	2	3	4
22. Taldearen garapena zaintzen dut, lankidetzeta eta berdintasuna partekatzea eta sustatzea.	1	2	3	4
23. Aurreikuspen berak ditut nesken eta mutilen emaitzei eta lanari dagokienez.	1	2	3	4
24. Ikasgelan ekintza positiboak egiten ditut, genero-estereotipoak eta nesken eta mutilen arteko eskubide- eta betebeharrak desberdintasunak argi eta garbi adierazten dituzten egoerak saihesteko.	1	2	3	4
25. Ikasgelan adibideren bat jartzen dudanean, ez dut, inola ere, gizonen eta emakumeen irudi tradizionala erabiltzen.	1	2	3	4
26. Taldeko lanetan neska edo mutil bat aukeratzen dut taldeko koordinatzaile aritzeko, beste irizpide batzuk kontuan hartuta (ez neska ala mutila diren).	1	2	3	4
27. Modu berean zuzentzen naiz ikasleengana, neskak ala mutilak izan, eta modu berean eta tonu berean tratatzen ditut.	1	2	3	4
28. Genero-aldagaia kontuan hartzen dut, beti, eskolak bideratzeko orduan.	1	2	3	4
29. Ez dut desberdintasunik egiten neskei eta mutilei esleitutako zeregin espezifikoetan.	1	2	3	4
30. Klasean ez dut maskulinoa erabiltzen beti mutilei eta neskei zuzentzeko.	1	2	3	4
31. Ikasgelako ekoizpenetan genero-berdintasuna hartzen dut kontuan, hizkuntzan, irudietan ...	1	2	3	4
32. Ikasgelako programazioetan genero-berdintasuna hartzen dut kontuan, hizkuntzan, irudietan	1	2	3	4

PARTAIDETZA ETA ORDEZKARITZA

33. Bi sexuen partaidetza eta ordezkari indartzeko ekintza positiboak garatzen dira, ikastetxeko ardura-postuetan, gizonen eta emakumeen proportzioa kontuan hartuta (ikasleak, familiak, irakasle ez diren langileak, irakasleak ...).	1	2	3	4
34. Ardura-postuetan gizonen eta emakumeen kopuru ekitatiboa dago, irakasleen proportzioa kontuan hartuta.	1	2	3	4
35. Neska-mutilen kopuru ekitatiboa dago ikasleen ordezkari eta parte-hartzean, ikasleen proportzioa kontuan hartuta.	1	2	3	4
36. Familien ordezkari eta parte-hartzean gizonen eta emakumeen kopuru ekitatiboa dago, gurasoen proportzioa kontuan hartuta.	1	2	3	4
37. Irakasle ez diren langileen ordezkari eta parte-hartzean gizonen eta emakumeen kopuru ekitatiboa dago, gizonen eta emakumeen proportzioa kontuan hartuta.	1	2	3	4
38. Hitz egiteko txandak berdintasunez erabiltzen dira, ikastetxean dauden emakumezkoen eta gizonezkoen ehunekoak kontuan hartuta.	1	2	3	4

Talde txikian item bakoitzari emandako erantzunak adosten saiatuko gara, eta argudiatzen eta akordioak lortzen ahaleginduko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertu, eta taula honetan sailkatu:

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA		
	Zenbakiak	Zergatiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetu beharreko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten itemak).		

Gure ikastetxean hautemandako indarguneak eta ahuleziak ikusita, epe laburrean zer hobekuntza-elementu egin daitezkeen zehaztuko dugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, hobetzeko behar horiek formulatuko ditugu, datozen ikasturteetan aurrera eraman ahal izango ditugun helburu gisa.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	
HOBETZEKO BEHARRAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK